

Indarra eta Indarra. Joseba Arregi Jaunari

MARTXOAREN 4ean *Deia* egunkarian argitaratutako artikuloen esaten zutenen, beste batzuren artean, euskalgintzaren alorrean eta erakunde publikoei begira indarrean oinarritutako *taktika* erabili duela hainbaterik «beraien irizirik eta proposamenak indarrez bortxatu nahi izanaz», eta horren aurrean «etorkizuneko zuzenena zitekeen *estrategia* definitzea izan omen zuten helburu» administrazioak. Azken aldi honetan, berriz, horiek ahuldadearen taktikara pasa omen dira, eta «adostasunaren eta elkarlanaren leloa kantatzen hasi».

Zeuk, ordea, adostasuna eta elkarlana beharrezkotzat hartuz ere, estrategiaren mailan ipini nahi duzu aurrean arazoa; eta honako galdera jaulkitzen duzu: «Zer pentsatzen duzu euskarari buruz, zein da lortu nahi dugun helburua, eta horretarako zer nolako bitarteko erabiliko ditugu; zein giroinguru politikotan uherzten duzu gure euskararekiko lana eta iharduna?». Eta amaitu, horrela amaitzen duzu artikuloa: «sakonean adostasunik ez bada, hobe (sic) da elkar egintzen ez ibiltzea».

Ez naiz ni politikari; baina uste dudanez, beti ulertu izan dizuet politikariei alderdien strategiak ezberdinak izan arren, elkarlana egin dutekeela hainbat puntu programatikotan behintzat; gehiago esango nuke, orain Jauriritzen dauden hiru (bi?) alderdien artean sakonako batasun estrategikorik ez dagoela ulertu izan dizuet; hala ere, elkarlanaren ariz zere nonbait (ala elkarren alboan, kontra lanean?); eta, alderantziz, maila estrategikoko

ados omen zeundeten bi alderdien arteko gubernuko elkarlana eten egin zen, maila taktikoko ezberdintasunak omen zenituzten eta.

Baina ez dut konparatu nahi alderdien arteko harremana, batetik, eta erakunde publiko eta sozialaren arteko, bestetik. Ez bait da bigarren hori alderdien taktika eta estregia kontrajarrien kontua, ezta gobernuaren eta oposizioaren arteko borroka, botereari zineko etsi edo zineko eskuratu. Erakunde publikoen eta sozialaren arteko harremana eta elkarlana asko azaldu dituzte, aspaldidanik ordua eskatu ere.

Dena den, proposamen pare bat nahi nizuke aurreratuta. Estrategiatz mintzo garel, badi-rudi erakunde publikoaren helburu estrategikoa *elebitasuna* dela eta erakunde sozialena, berriz, *elebakartasuna*; hori da behintzat Mikel Axtagap Deian martxoak 10eko artikuluan adierazitakoa. Nik, neurte aldetik, zera proposatzen dizut: utzi dezagun albo batera eskema zaharkitu eta dikotomiko iri (elebitasuna/elebakartasuna) eta mintza gaitzen euskararen berreskurapen osoaz, diskurtso soziala eta ez teknikoak egiten dugunean behintzat. Hau

da, estrategia alorreko adostasuna.

Plano taktikori dagokionez beste proposamen bat: presta dezagun elkarrekin nola antolatuta erakunde sozialen laguntza Perfilen Plana aurrera atera eta administrazioa euskalduntzeko eta, aldi berean, presta dezagun elkarrekin nola antolatuta erakunde publikoen laguntza EGUNKARIA aurrera ateratzeko. Hau da, taktika alorreko adostasuna.

Lagun bati entzuna diot behin baino gehiagotan badirudiela agintari publikoren batzuk, agintean egonik oposizioaren —areago, pertsekuzioaren— konplexua dutela eta horrek azaltzen duela hor dagoen askoren jarrera. Indarrarena eta ahuldadearena izan daitezke taktikak: onak edo txarrak. Arriskua sortzen da indarra bihurtzen denean helburu estrategikoa, eta horretarako indarra erabiltzen denean indarrikoki. Boterea eskuratzeko duenak du indarrik haundiena: indar politikoa, alegia. Okerrena da, ordea, erakunde publikoen indar hori erakunde sozialak makaltzeko eta ahultzeko erabiltzea, indar hutsa erakutsiz eta indarraren indarrez elkarriketa eta elkarlana ere ukatuz.

Kontura gaitzen behingoz, gauzak dauden moduan Euskarak denon indarra behar duela, norabide berean eta ez elkarren kontra jarria. Egin dezagun bidea horrela, nahiz eta helmuga spriean hakoitza bere aldetik joan. Gu horretarako prest gaude, eta zu Arregi Jauna?

J. INAZIO MARKO JUANIKORENA
EKB-KO IDAZKARI NAGUSIA

BERRIAKZIRI



IOSU OSTERIZ
Eeko nafar kidea DEIA

«Eeko zuzendari-tza EAEn nora ezean eta kontraesan bezala aritu da»



FRANZ-OLIVIER GIESBERT
'Le Figaro'-ko zuzendaria eta doctore LA VANGUARDIA

«Emaizta honekin De Gaulle aldegingo zukeen, baina Mitterrand desberdina da, agintea gurtzen du»



GLEB IAKUNIN
Erusiar pope eta diputatua EL MUNDO

«Ieltsinek 'impeachment' dokumentua komuneko papera balitz bezala erabiliko luke»



SALI BERISHA
Albaniaiko lehendakaria EL PAIS

«NATO eta Estatu Batuei Kosovo kontrolatzeko tropak bidal ditzaten eskatu diet»

Martiriak? Ez, eskerrik asko. Solidarioak

HITZ hutsetatik haratago borroka bere egiteko gauza ez direnek; arisku personalak bereganatzeko gai izan gabe beren ekinztei eduki gutzia kentzea nahizko dutenek; bide erdian geratzen direnek, estetika eta jarrera iraultzailea nahasten dituztenek; helburu politikotarako ezin gaituztelako erabili *beltzak* spreizatzen dituztenek; inolako etekin politikorik lortu gabe borroka desinteresatuta zer den eta borrokkak berez zentzua badaukala ez dakitenek ez dakite beren sudur puntatik haratago begiratzen.

Horiek guztiek spreizatzen martiri deitzen digute. Izena bezekoa era isekaria da hori, taktiken eta strategiaren balorazioirik eginen ez duena. Ez al da hori era bat izango beren ereduaren bidez mugimendu antimilitaristen gogortasuna eta zailtasunak intsumisoei erakusteko duten gaitasunik eza eta heldura justifikatzeko?

Ez zaie interesatzen Elkartasunaz dugun kontzeptua ulertzea. Gure iriziz, hori ez da intsumisio zapalduari bizkarreko hipokrita batzuk ematea. Ez eta gazteak borroka bideratzea eta aldi berean, intsumisioak zatitzeko beste ezertarako egin ez diren lege batzuetan oinarrituta, errepresioa ebitatzea.

Gu ez gara sistemaren biktimak, borrokoak baizik. Gure jarrerarekin Estatuari irtenbide personalaren bidez zatiketa eragitea helburu duen bere miserikordia hipokrita ez dugula onartzen erakutsi nahi diogu. Gu ez gara martiriak ez garelako unitate bakartu batzuk, askatasunaren zentzu naturalen bere aldeko borrokan solidarioak baizik.

«Arrazionalista» askorentzat elkartasuna hitz doilortua da eta onenean ere aurreko hamarkadetako kontzeptua dute, sistemak bultzatutako norbanako berekoia ukatzeko gauza ez dena.

Jarrera koherente batean, eta are gehiago aukera libertarioetik, bitartekoen eta helburuen arteko lotura gure kontzientziak eta egoerak eskutatuko bezain estua da.

Gizarte aske, berdinzale, elkartasuneko eta gertarik gabea bultzatzeko asmoz, eguneko borrokkak koherentea izan behar du eta elkarri emandako laguntzan oinarrituta. Kontzientzia handitu eta engaiamendua zabaltzeko erarik onena ez da hitza, erueda baizik.

Ghandizaleak izatea leporatzen zaigu —bai modu erraza arazoak aztertzeko— zigorraren menpe jarri (intsumisio gisa agertzearen kontrakoa) eta askatasunari uko egiten diogulako. Oso bazezaleak garelako erakusteko jarrera pasiboa hartzen dugula ere bai. Inondik ere ez.

Guk «baldintzapeko askatasunari», zainduari, uko egin diogu eta hainbat hilabetetan bizileku izango dugun espazio fisikoaren mugak onartu egin ditugu autodefensa eta salaketa mekanismo gisa, horren bidez presoen eta «baldintza batzuekin aske» daudenen artean kolektiboaren zatiketa eragotzi nahi baitugu.

Gure erantzuna kontraeraso gogor eta konprometitu bat egitea izan da eta horrek Gobernuaren eta bere errepresioaren higadura politikoa areagotzeaz gain militarra den guztia izen ona gaitzea ekarriko dio. Horren bidez agerian uzten dugu Estatuarentzat zaila dela esaten eta egiten dituen gauzetan sinesten

duen desobediencia zibileko mugimendu bati amaiera ematea.

Askatasunari buruzko kontzeptu eskasa da batzuen sasiaskatasuna eta horien berdinkideen presondegitratzea onartzen dituen. Gurtzat askatasuna ezarritako aruekiko menpekotasunak baimentzen dizuten tartearen baitan lepotik kate bat lotuta atzera aurrera nahi eta ahal duzuna egin ez ibiltzea baino zerbait gehiago da. Aske izatea kritikoa eta koherente izatea da eta baita nor bere burua gainontzekoen askatasunean ezagutzea ere.

Askoren ustez derrigorrezko zerbitzu militarra edo are Armada bera ere desagertarazi nahi ditugulako gaude presondegian. Egia da. Baina gure borroka sakonagoa da.

Estatuaren gisako egitura usteltzaile eta hondagarriarik egon gabe, gizabanakoak eta herriak era baketsuan bizitzeko aukera emango duen gizartea lortzearen elkartasunez lan egiten dugulako gara antimilitarista. Estatu bere egiazko funtsa agerian uztera behartzen dugu. Gizarte desberdintasun sakonek garrantia, pentsamendu kritikoa eta desberdintasunaren ezeztatzaile, hori gutzia baita.

Gurea utopia irekia da eta elkartasuna, berzotasuna, askatasunarekin batera doan berdintasuna, sormena eta gisako balioak zabaltzen ditu gizakia eta planetarekin elkartasuneko harremanak dituen gizarte sare bat sortuz.

PABLO ETXEGARAI
INTSUMISIOA
● Erredakzioan itzulia

ZAKILIXUT

© Olariagaq

